



KIT-KRAK

Aldaketarako prototipoak

<http://www.kitktrak.org>

ColaBoraBora-k antolaturiko udako auzolandegia da eta gizarte berria prototipatzeko helburua du. Ezagutzez, desirez, tresnez edo beharrez osaturiko KIT desberdinak dituzten pertsonak bilduko ditugu eta talde-lanaren bidez eta elkarri lagunduz, gaur egungo KRAK egoerari modu sortzailean aurre egiteko aukerak proposatuko ditugu.

Uztailak 28an arratsaldeko 19:00etatik aurrera, emaitzen jendaurreko aurkezpena egingo dugu. **MUNDU GUZTIA DAGO GONBIDATUA. PASA ZAITEZTE ZAWPtik 12 EGUNETAN ZEHAR KIT-KRAKEn EGINDAKO ELKARLANAREN EMAITZAK GUREKIN KONPARTITU ETA OSPATZERA.**

- Estatu osoko 20 eta 25 urte bitarteko gazteei zuzendutako auzolandegia da eta ZAWP Bilbaon egingo da (Deustuko Erribera, Bilbo). Deustuko Erribera eta Zorrozaurre penintsula kanpamendu nagusi, aukera-eremu eta trantsizioan dagoen gizartearen metafora gisa hartuta.
- 2011. urteko uztailaren 18a eta 29a bitartean, etengabeko jardueraz jositako 12 egun: hitzaldiak, lantegiak, errekan zehar egingo dugun deriba...
- 10 parte-hartzaileek, hainbat aktibista soziokulturalek, begiraleek eta jarduera irekietan parte hartuko duten guztiek osatuko dute lan-taldea. 24 orduz elkarrekin bizitzen eta denen artean talde-proiektu bat garatuz.
- Etorkizunerako aukera bateratzaileak eta iraunkorrak proposatzeko parada. Gizarte berrirako prototipoak; gaur egungo gizartetik abiatuz, collage-a eta mikroesperientziak oinarri hartuta.
- Sormena gizartea eraldatzeko tresna gisa ulertuz, talde-lanaren inguruko hausnarketa ekintzailea oinarri duen esperientzia da.
- Eusko Jaurlaritzaren Nazioarteko Auzolandegien programaren (Auzolandegiak) barruan kokatzen da eta era berean, ColaBoraBora-k Lan Ekintzaren laguntzarekin, EUTOKIA Gizarte Berrikuntzarako zentroan garatzen duen programazioaren parte da.
- Prozesu guztia elkarlanean egindako blog batean jasoko dugu kontakizun eta artxibo gisa eta transmedia ikuspuntutik (ikus-entzunezkoak, grafikoak, testuak...):
<http://www.kitktrak.org>



1.- SARRERA

Milurteko hasiera manierista eta apokaliptikoa bizi dugu. Irailaren 11tik hasi eta maiek iragarritako 2012ko munduaren bukaerara bitartean, finantza-burbuilaren leherketa, marko geopolitiko berriaren hasiera ezegonkorra edota ingurumen-hondamendi ikaragarriak bizi izan ditugu eta hau guztia, denbora errealean eta puztuta jasotzen dugu teknologia berriei esker.

Garai nahasiak dira, non krisi ekonomikoaren aitzakiapean, baloreen eta eredu kultural, sozial eta politikoaren krisi sakona ezkututzen den. Kapitalismo neoliberal globalizatuaren gainbehera da eta baita, Europa zaharrean, oraindik orain modu barkaberan, "ongizatearen gizartea" deitzen dugun horrena ere. Krisi hau, kataklismoaren inertzia nihilistaz haratago, mundu berri bat proposatzeko eta geure burua berrasmatzeko aukera, beharbada anker, baina ziur aski bakar gisa aprobeixatu beharra daukagu.

Erdibideko garaia, zalantza garaia, non kreditu eta likidezia ezak hainbat eta hainbat handi usteko proiektu geldiarazi dituen. Proiektu efektista hauek indibidualismoan, kontsumismoan, espekulazioan eta iraunkortasun-ezean oinarritzen den sistema dekadente, bidegabe eta makur honen aurpegiak ilunena islatzen dute. **Inpas honek etorkizunerako aukera xumeak, baina era berean, iraunkorrak eta bateratzaileak elkarrekin proposatzeko bidea irekitzen digu:** sareko lana, *do it yourself, do it together*, guztien ongiarekiko konpromisoa eta erantzukizuna, errealitate bihurtzeko etengabeko borroka sortzailean ari den utopia eta eguneroko bizitzatik sortzen den indar eraldatzailea.

Hau guztia da *KIT-KRAK*. Egitasmo honek **gizarte berria eraikitze prototipo bat (beste askoren artean) garatzeko asmoa du, gaur egungo gizartearen hondarrak, eraisteko zain alde batera utzitakoak, bazterretan eta periferian geratutakoak, collage-a eta mikroesperientzien hibridazioa oinarri hartuta.** Ezagutza eta interes desberdinak eta osagarriak dituzten pertsonak bilduko ditugu eta denen artean, aldez aurretik iragarri diguten *krak* honi aurre egiteko asmoz, tresnez eta prozesuez osatutako kit bat proposatuko dugu sormena erabiliz. Hau guztia artea, ekologia, etika feminista, elkartasunezko ekonomia, antolakuntza-eredu horizontalak, talde-lana, hackinga, burujabetza energetikoa, biomimetika, etab. erabiliz egingo dugu eta nola ez, parte-hartzaileen ekarpen guztiak izango dira ongiatorriak.

Azken finean, ColaBoraBora-k eta ZAWP-ek antolaturiko ekintzen barruan kokatzen den 12 eguneko uda-auzolandegia izango da eta **Deustuko Erriberan eta Zorrozaurreko penintsulan (Bilbo) izango du kanpamendu nagusia.** Krisia baino lehen, Zaha Hadid-ek auzo honentzat proposaturiko etorkizuneko proiektuaz eta hondamendi industrialaren oroimenaz haratago doan **agertoki prototipoa** izango da.



2.- HELBURUAK

Hona hemen **KIT-KRAK** egitasmoaren helburuak modu sintetikoan azalduta:

- Parte-hartzea bultzatzeko metodologiak erabiliz, bakoitzaren gaitasunak eta ezagutzak batzea helburu komunak lortzeko asmoz, hau da, **talde-lana eta elkarreagina** sustatzea.
- **Sormena “lehengai” eta tresna** gisa erabiltzea eta parte-hartzaileek sormen hori euren testuinguruan esku hartzeko eta gizartearekin elkar eragiteko erabil dezaten perspektiba berritzailea eskaintzea.
- **Diziplina arteko lana, kultura aniztasuna, elkarlana eta ikus-entzunezko eta transmedia sormena bultzatzea.**
- Elkarbizitzaren bitartez, parte-hartzaileen arteko **harremanak eta sinergiak** sustatzea.
- **Parte-hartzaileak euren testuinguruarekin**, hiriarekin eta hango biztanleekin harremanetan jartzea.
- **Aldaketarako aukerak eskainiko dituzten prototipoak** garatzea edo gutxienez, **hausnarketa sortzailea eta espiritu kritikoa** sustatzea.

3.- JARDUERAK

KIT-KRAK egitasmoaren jarduera-programa bi atal nagusitan banatzen da. Lehenengoan, hurbilketa eta analisia izango dira ardatzak eta bigarreanean, prototipoen bidezko proposamenak landuko ditugu.

3.a.- 1 FASEA: AZTERKETA KRITIKOA

Lehen fase honetan, eredu politiko, ekonomiko eta sozialaren azterketa kritikoa landuko dugu (uztailak 18-23). Gure asmoa testuinguru lokalarekin bat egitea denez, hiritar guztien parte-hartzea bultzatu nahi duten jardunaldi irekiak antolatu ditugu, denen arteko hausnarketa sustatzeko asmoz.

Hitzaldi- eta eztabaida-jardunaldia I – Uztailak 19,: 18:30etik 20:30era.

- **Economía feminista**
Begoña Pecharromán. Farapi-ko zuzendarikidea
<http://www.farapi.com/>
- **Decrecimiento y ciudades en transición**
Desazkundera elkarte
<http://www.desazkundera.org/>

Hitzaldi- eta eztabaida-jardunaldia II – Uztailak 20,: 18:30etik 20:30era.

- **Territorio, ciudad y creatividad**
Exterrae-ko Adolfo Chautón
<http://www.exterrae.org/> <http://achauton.tumblr.com/>
- **Retrospectiva del movimiento 15M en Bizkaia**
HartuBizkaia
<http://hartubizkaia.net/>



OPEN SPACE – Uztailak 21: 10:30etik 18:00etara.

Open Space talde-lanean oinarritutako lan-metodologia da eta bere ardatz nagusiak eztabaida eta auto-antolakuntza dira. Talde-sormena sustatzen du eta hainbat proposamen sortzea ahalbideratzen du. Oraingoan, hauek izango dira Open Space honen ardatz nagusiak: **Nola prestatuko dugu KIT egoki bat KRAK honi aurre egiteko? Zein ezagutza, desira, tresna edo behar eskaini nahi dizkiozu komunitateari?** Dinamika honetan laguntzeko **Eleder Aurtenetxe** izango dugu gurekin: <http://in-fluyendo.blogspot.com>

3.b.- 2 FASEA: PROPOSAMENAK ETA PROTOTIPOAK

Bigarren fasean prototipoak zehaztu eta garatuko ditugu (uztailak 24-29).

Taldeak hainbat egunez lan egingo du eta gorputza protagonista nagusi izango duen lantegi osagarri bat ere izango dugu. Fase honi bukaera emateko **emaitzen jendaurreko aurkezpen irekia** egingo dugu.

- **“Gorputzarekin hitz eginez” lantegia – Uztailak 26, 10:00etatik 14:00etara.** Gorputzak, fisikoak (mugimendua, ukimena, espazioa...) normalean gure arreta merezi ez duten bestelako ezagutza eta bizipenak eskaintzen dizkigu, orain artean, ikuspegi mentaletik soilik lan egin dezagun hezi baikaituzte. **Idoia Zabaleta** koreografo eta biologoaren eskutik. Bere lanak sormen-prozesuen ekologia, identitateen arteko harremanak eta lurraldeen mugak jorratzen ditu. <http://www.azala.es/>
- **Amaiera-jardunaldi irekia – Uztailak 28, osteguna: 19:00etatik aurrera. MUNDU GUZTIA DAGO GONBIDATUA. PASA ZAITEZTE ZAWPtik 12 EGUNETAN ZEHAR KIT-KRAKEn EGINDAKO ELKARLANAREN EMAITZAK GUREKIN KONPARTITU ETA OSPATZERA.** ZAWP Bilbaoko Mol pabiloiak atea irekiko ditu ostegun arratsaldean. Bizipenak, ideiak eta garatutako prototipoak partekatzeko eta ezagutzeko topagunea izango da. Gunea irekia egongo da ostiral goizez ere, 11:00etatik 14:00ak arte. Prozesu eta emaitza guztiak <http://www.kitkrak.org> web-gunean jarriko ditugu, zabalkundea, elkarrekin eta ezagutza librea sustatzeko asmoz.

Honetaz gain **KIT-KRAK** prozesu guztian zehar ekintza desberdin ugari gertatu izango dira.

3.c.- KIT-KRAK CRONICLES

12 egunetan zehar prozesu paralelo bat garatuko dugu. Prozesua maila grafikoan eta transmedia ikuspegia ardatz hartuta egingo dugu eta **KIT KRAK egitasmoan egindako lana komunikatzeko, modu desberdinean pentsatu eta irudikatze, ideiak zehazteko eta prototipoak eraikitze** bidea emango digu.

Teknologia berriak arakatuko ditugu, *hurbileko telebista* edo *web 2.0* besteak beste eta komunikatzeko eta parte hartzeko tresna gisa erabiliko ditugu. **ZEMOS98** taldearen laguntza izango dugu prozesu honetan zehar. Lan-talde honek hezkuntzarekin, komunikazioarekin eta ikus-entzunezko sorkuntzarekin zerikusia duten edukiak ikertzen, programatzen eta ekoizten ditu. <http://www.zemos98.org>.



Eskema, marrazki eta mapa kontzeptualen mundu honetan, **Ane San Miguel** izango da prozesu iradokitzaileen eta eraldatzaileen bidez, sorkuntza erraztuko digun gidaria <http://about.me/anesanmiguel>

3.d.- BESTELAKO JARDUERA OSAGARRIAK

Auzolandegian zehar, **ezagutza- eta elkarbizitza-jarduerak** egingo ditugu. Taldea, hiria eta ingurunea ezagutzeko jarduerak. Testuinguru lokalean sormenaren, hiritarren parte-hartzearen eta esku-hartze sozial eta kulturalaren inguruan garatzen ari diren hainbat ekimen ezagutzeko jarduerak egingo ditugu egunero: hiriko hainbat eragile bisitatuko ditugu, EUTOKIA, Kukutza, Dirurik Gabe edo Hika Ateneoa besteak beste; Donostiara eta Deba Garaira egingo dugun bidaiari, hirian (Ciudadano Cero edo Europako Kultur Hiriburua 2016) zein eskualdean (Bagara, trantsizioan dagoen eskualdea) martxan dauden hainbat ekimen ezagutzeko ditugu; errekan zehar deriba bat egingo dugu; gaueko zinekluba; txangoak hondartzara...

4.- NORTZUK EGITEN DUGU KIT-KRAK?

KIT-KRAK ekimena **Colaboradora**-k gizarte berrikuntzarako **EUTOKIA** zentroan duen ekintza-programazioan kokatzen da. **Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Gazteria Zuzendaritzaren Nazioarteko Auzolandegien AUZOLANDEGIAK 2011 Programaren** barnean dago eta **Lan Ekintza** eta **ZAWP Bilbao**-ren laguntza jasotzen du.

ColaBoraBora (<http://www.colaborabora.org>) alegiazko lurraldea da, nagusi den errealitatearen eta irudikatzen dugun desiraren arteko irla. Arakatu gabeko paradisua da. Kode irekia oinarri duen kultura, ikasketa eta ezagutza partekatua abiapuntu hartuta, pertsona eta elkarte desberdinen arteko elkarlaneko prozesuak bideratzeko topaleku izatea nahi dugu. Sortzen ari den komunitatea da, heterogeneoa eta mutantea, egunerokotasunetik, txikitik eta hurbiletik hasita, gizarte eraldatzen saiatuko diren proiektuak aurrera eramateko biltzen den komunitatea.

ColaBoraBora prokomunaren ideien inguruan pentsatzeko eta ekiteko lekua da (beste askoren artean) eta jarduera ekonomikoak gizartearen eta pertsonen testuinguruan bertakotzea bilatuz, eremu publiko aberatsa, iraunkorra eta ulertteraza mantentzeko asmoa du. Onena, berez, honako hau da: ColaBoraBora, egunen batean zerbait izango bada, denen artean erabakiko duguna izango da.

ColaBoraBora **AMASTÉk** (<http://www.amaste.com>) koordinatutako ekimena da. **AMASTÉ** ideia-bulegoa da eta bitartekaritza, harremanak eta parte-hartzea oinarri duten prozesuak garatuz, irudimena, hausnarketa ekintzailea eta espiritu kritikoa bultzatzeko helburua du. Proiektua Bilboko Bolueta auzoko **EUTOKIA** Gizarte Berrikuntzarako zentroaren testuinguruan kokatzen da. Ideia sortzaileak eta pertsona zein proiektu desberdinak harremanetan jartzeko asmoarekin sortutako eremua da, utopiak eta errealitateak bat egingo duten eremua, mundu zuzenagoan, iraunkorragoan eta osasuntsuagoan sormena erabiliz, pentsatzeko, amets egiteko eta ekiteko eremua, hain zuzen ere.



5.- INFO+

Informazio gehigarria edo prentsa-materiala behar izanez gero, bisitak egin nahi izanez gero edo *KIT-KRAK* egitasmoko antolakuntzarekin edo partaideekin elkarrizketak egin nahiz izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan:

Txelu Balboa / txelube@amaste.com / 656 737 445

Idoia Azkorra / idoia@amaste.com / 647 450 171

Prentsa-irudiak:

<http://www.flickr.com/photos/colaborabora/sets/72157627263228648/>

ZAWP Bilbao

Deustuko Erribera, 47 behea

<http://www.zawpbilbao.com>

AMASTÉ eta ColaBoraBora

Aretxaga, 10

48003 Bilbao

(+34) 946 053 468

<http://www.amaste.com>

<http://www.colaborabora.org>

<http://www.kitkrak.org>